

## **Etapako helburuak:**

Haur Hezkuntzak berebiziko garrantzia du haurren garapen osoan, Etapa honetan garatzen hasten dira, hain zuzen, adimenaren gaitasunak, nortasunaren ezaugarriak, gorputzaren ahalmenak, gizarteratze eta harrementarako hastapenak. Beraz hezkuntza arloan betekizun nagusia du.

Gainera, Gasteizko inguru soizolinguistikoa kontuan izanik gure ikasleek euskara erabilera ziurtatzea da helbururik nagusia. Hori dela eta, ahozkotasanari lehentasuna ematea ezinbestekoa iruditu zaigu. **Urtxintxa** metodologiak honen inguruan egindako lana guztiz aproposa ikusirik, berarekin aurrera eramatea erabaki da.

## **Metodologiaren ezaugarriak:**

### **1. Umea ikaskuntzaren prozesuan benetako protagonista da:**

- bere nahia kontuan izango dugu, askotan abiapuntua (motibazioa)
- bere erritmoa errespetatu. HHn garapenean ezberdintasun handiak daude. Prozesua da garrantzitsuena, ez azken emaitza.
- Irakaslearen papera: behatzailea eta bultzatzailea.

### **2. Umeek EGITEN ikasten dute. Garrantzitsua da esperimendazioa, autonomia, segurtasuna (okertzea inportantea ikasteko), errutinak.**

### **3. Ahozkotasuna:**

- Orain arte umeen ulermen maila ona izaten zen, baina produkzio maila ez nahi genuen bestekoa. Irakasleak hitz egiten zuen eta umeak entzun;
- Orain umeak hitz egiten jarri behar ditugu, sujeto pasibotik aktibora pasatu behar dira.

## **Gelako antolamendua: txokoak**

<b><i>Jarduerak unitate bakoitzean:</i></b>	<b><i>Txokoak:</i></b>
<ul style="list-style-type: none"><li>- <u>Ikas-norabidea</u>: unitatearen aurkezpena (motibazio/araketa/sintesi jarduera).</li><li>- <u>Interesgunearen horma-irudia</u>: talde elkarrizketak.</li><li>- <u>Ipuina</u>: elkarrizketak, behaketa, kontaketa, sekuentziekin, jolasak...</li><li>- <u>Talde antzerkia</u>: dramatizazioa.</li><li>- <u>Abestiak</u>: ipuinaren abestia, jolaserako abestiak, tradiziozko abestiak, musika klasikoa (entzunaldia), erritmo eskemak...</li><li>- <u>Hiztegia</u>: erlazionatzeko, sailkapenak egiteko, igarkizunak asmatzeko...</li><li>- <u>Igarkizunak</u>: asmakizunak.</li><li>- <u>Testuak</u>: komikia, ipuina, olerkia, bertsoa, gutuna, errezetak, gonbidapenak...</li><li>- <u>Olerkiak/aho-korapiloak</u>.</li><li>- <u>Esaera zaharrak</u>.</li><li>- <u>Egoera komunikatiboak</u>: interakzioa, pentsamendu aktiboa (behaketa, identifikazioa, definizioa, hipotesiak aurkeztea, estrategiak hautatu...).</li><li>- <u>Problemen ebazpena</u>: IDEAL prozedura.</li><li>- <u>Egoera matematikoak</u>: logika, topologia, neurria, aritmetika.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- HIZKUNTZA TXOKOA.</li><li>- ERAIKUNTZA TXOKOA.</li><li>- JOLAS TXOKOA (SUKALDEA).</li><li>- PLASTIKA TXOKOA.</li><li>- LAN TXOKOA.</li></ul>

### **Gurasoen partaidetza:**

- Umeek ez dute ikastolan ikasten soilik: familia/ingurua aberatsa da eta aprobetxatu behar da.
- Gurasoen inplikazioa beharrezkoa da:
- “haurrengan oso eragin baikorra sortzen dute eta ikastola eta familiaren heziketaren arteko jarraipena bermatzen da”.
- Umeen lana baloratu, laguntza/eredu eskaini, eskatzen zaiena ekarri...
- NOLA: eskutitzen edo oharren bitartez.

### **Psikomotrizitatea**

Psikomotrizitate praktikak, umeen garapenean duen garrantziaz jabetuta honetan sakontzeko proiektu hau bideratu dugu. Bertan Haur Hezkuntzan ematen diren saioren funtsa, berrantolaketa eta sistematizazioa aurrera ateratzea da helburu.

### **Ulises**

#### **Dramatizazioa**

Helburu nagusia jolas sinbolikoaren bitartez umeen garapen integrala bultzatzea da. Ekintza hauen helburua:

- Umeen irudimen esparrua garatzea
- Ahozkoak zein ahozkoak ez diren adierazpenak garatzea
- Gizarteratze prozesuaren garatzea

Hau guztia aurrera eramateko metodologia honetaz baliotuko gara:

- Espazioaren aurkezpena (LAU TXOKO).
- Komunikazio eta Adierazpena (JOKOAREN GARAPENA)
- Erlajazioa (MASAJEA eta ABESTIA)
- Erretroakzioa (AHOZKOA edo MARRAZKIA)

### **Ingelesa (HH5/HH6)**

Ingelesaren lehen hurbilpena HH5 eta HH6 mailetan hasten dugu ARTIGAL metodologiaren bitartez. Era honetan, READY FOR A STORY! Materialarekin ikasiko du ingelesa zuen haurrak.

Metodologia honen funtsa haurrek eskolan taldean antzezten dituzten istorio edo ipuinekin ingelesa ikastea da. Ipuin horiek lan gehigarri batzuekin osatuko dira: abesti, mural, liburu, Joko, marrazteko fitxa etab..

Jarduera hauetako bakoitzak, ipuinak ingelesez berbizitzeko eta hizkuntza ikasteko aukera berri bat emango diote ikasleari.

Azkenik, gelan landutako material guztia haurrak etxera eramango du etxekoei eta ingurukoei ikasitako guztia kontatzeko, izan ere, Josep Maria Artigal berak esaten duen bezala: *“Contar cuentos enseña lengua a quien los cuenta”*.